

...elkarrizketa:

**AINHOA ULIBARRI**  
**“Minbizia dutenak artatzean laguntzea da nire ikerketaren helburu nagusia”**  
 6.or



**Kirola**  
 Laudioko igerilariak Euskal Herriko podium bila 12. or.



**Okondo**  
 Arenaldeko parkea auzolanean berritu dute gurasoek 4. or.



**Iritziak:**  
**NORBERTO ALDAITURRIAGA** 2. or.  
 KOLDO GILSANZ 6. or.  
**JONATAN MORENO** 7. or  
 LUIS VIL 10. or  
**IRATI MARAÑON** 16.or



**aiaraldea** **eus**

Aiaraldeko hamabostekaria  
 2017 /// Otsailak 23 ///  
 OSTEKUNA  
 64. zenbakia ///  
 Doan ///  
[www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)



**1976an piketeei egotzitako eraiketa baten bertsio berria plazaratu dute**



1976ko urriaren 10ean erail zuten Vicente Velasco Garran behargina Laudion. Garai hartako zenbait komunikabidek Aceros de Llodio lantegiko pikete bati leporatu zioten hilketa.

Beste iturri batzuen arabera, aldiz, poliziak edo eskuin muturreko militanteak izan ziren Velascoren hiltzaileak. Jose Ignacio Alvarado laudioarrak kasua ikertu eta Eusko Jaurlaritzari bidali dizkio ondorioak, txosten ofizialeko bertsioa gezurtatu ondoren. 7. or.

**AMIANTOA AIARALDEAN:** Laudioko Udala zigortu dute amiantoak eragindako heriotza bat dela medio. Eskualdeko enpresetan kasu gehiago daude 8-9 or.

**ZURE MARKARI BULTZADA EMAN**

KAMISETAK, USB-AK, BOZGORAILUAK, ... BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU ///

**NAHIERAN PERTSONALIZATUTA**

GUREKIN ERE EUSKARAZI!



**G! Graf!k**

PRODUKTU PROMOZIONALA JANTZI ZERBITZUAK MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO  
 94 672 65 43  
[pro@grafiksarea.com](mailto:pro@grafiksarea.com)  
[www.grafiksarea.com](http://www.grafiksarea.com)

# \_iritzia



**Txema**

Urkijo

ABOKATUA

## \_Balkoitik

### Itunpeko ikastetxeen aldeko apustua

**D**uela egun batzuk bideoklip bat aurkeztu zen Lamuza Eskolan segregazioaren eta arrazismoaren aurka, ikastetxe-guraso elkarteak antolatuta. Biziki miresten dut guraso eragileen lana, baina bereziki maite dut Lamuzakoa. Bertan ikasi nuen EGB amaieran, eta nire semeak han egin zuen Lehen Hezkuntza osoa. Beti izan da ikastetxe xume bat. Egia esateko, Laudio dioko gainontzeko ikastetxe publikoak bezain apala da, pribatuekin alderatuta.

Herri honetako udal gobernuak -EAIk eta Ezker Abertzaleak- sistematikoki sustatu dute itunpeko hezkuntza pribatua modu lotsagabe eta bidegabe batean. La Milagrosa eta Laudio ikastola izan dira udal-laguntzen politika horren onuradun nagusiak (obrak, inbertsioak, eraikinen lagapenak...). Ikastetxe publikoak -zeintzuetan erlijioa eta euskara ere dagoen izan dira diskriminatu nagusiak. Denbora kontua zen horietako bat immigrazioaren eta kultur aniztasunaren eskola izatea.

Printzipio afera bat da: Publiko defendatzea izan beharko litzateke berdintasuna bilatzen duen edozein politikaren funtsezko ardatza. Euskal eskola publikoarentzat ezinbestekoa da laguntza eta inbertsio publikoak hobestearren beharra aldarrikatzea. Modu horretan askoz errazagoa izango litzateke guraso elkartearen eta Lamuza Ikastetxe-koa bezalako zuzendaritzen jarduna, dudarik gabe.



**Maialen**  
Irakaslea

Aurreko urteetan bai mozorrotu izan naizela, baina aurten ez, haur jaioberriarekin egon behar baikara. Koadrilako urtero ateratzen dira kalera mozorroren bat jantzita. Datozen urteetan ez dakit mozorrotuko garen. Baina aurten behintzat ez.



**Mari Carmen**  
Jubilatua

Ez naiz mozorrotuko aratus-teetan. Badut urtero mozorrotzen den iloba bat. Lehen hedatuago zegoen ohitura hori, baina krisiaren eraginez jaitsi egin da mozorrotzen den jendearen kopurua, diru gutxiago dagoelako jantziak erosteko. Jendea asko desanimatu da.



**\_GALDERA**

Mozorrotuko zara aurten go inauterietan?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



**Jabi**  
Fabrikako langilea

Ez naiz hemen egongo aratus-teetan. Kanpora noa auto-karabanarekin, hondartzara. Lauzpabost lagun joango gara bidaian. Hala ere, badugu hondartzan bertan mozorrotzeko asmoa. "Minion" izeneko pertsonaiez jantziko gara, pijamak baliatuta.



**Aimar**  
Ikaslea

Ez naiz mozorrotuko aratus-teetan. Ez zait horrelako gauzetan denbora eta dirua inbertitzea gustatzen. Txikitan askotan mozorrotzen nintzen: bakeroz, pirataz... eta antzeko pertsonaiez. Baina orain jada ez. Familian ere ez da ohitura mantendu.



**Saioa**  
Ikaslea

Bai, noski mozorrotuko naizela. Ez dizut esango zertaz, sorpresa baita. Hiru lagun joango gara gauza beraz mozorrotuta. Aurten oso ondo antolatu gara gure artean. Dena aurretik prestatu dugu. Guk geuk egin dugu mozorroa, hainbat dendetako arropak nahastuta.

## \_gutunak

### San ValentHIL!

Laudioko neska gazteen taldea

**M**aitasun erromantikoak hil egiten gaitu, ito, zapaldu. Egunerokotasunean entzun ditza-kegun "laranja erdia" eta "bizitzako amodioaren" ideiek ez digute gure nahieran bizitzeko askatasunik ematen. Egunerokotasunean ditugun kontrol, menpekotasun edota loturek hiltzerainoko gabitasuna suposatzen digute. Maitasun erromantikoaren ideia dugu mekanismo indartsuenetako bat patriarkatuak irautea bermatzeko; emakumeak azpiratu eta sistemaren pean jartzen gaitu. "Maitasuna" da eraso, abusu eta esplotazio egoerak justifikatzeko erabili ohi duguna, "maitasuna" gure buruei uko egin eta gu geu baliogabetzeko erabiltzen duguna, eta "maitasuna" askotan inguruko beste harremenak alde batera uztea ekartzen duena. Emakumeok ere patriarkatuak barneratu dizkigun ideiak erreproduzitzen ditugu, eta ezin dugu onetsi. ASKI DA, BAGARA NOR! Bagara nor bera gabe bizitzeko, eta ez dugu gure bizitza osatuko duen bikoterik behar aurrera egiteko. Ez dugu gure egunerokotasuna osatuko duten laranja erdirik behar; bai, ordea, garen bezalakoak onartu eta bizitzako tarte batzuk gurekin konpartituko dituzten pertsonak. Maitasun erromantikoak hil egiten gaitu!

### Herriak frackingaren aurka

Ieltxu Orueta (Fracking Ez Aiaraldea)

**D**agoeneko bi urte pasa dira Fracking Ez Aiaraldea sortu zenetik, eta denbora guzti honetan asko eta asko izan dira gure borroka ulertu eta frackingaren aurka batu diren Aiaraldeko herritarrak.

Ordutik asko aldatu da panorama: mehatxuak aurrera eraman eta babesten dituztenek aurrerapausoak eman dituzte. Honen aurrean, Euskal Herriko eta inguruko Frackingaren aurkako mugimenduok hainbat aktibitate, mobilizazio zein kanpainak egin ditugu. Herritarren babesa jaso dugu, HEL-rako bildutako 103.000 sinadurak kasu.

Argi ikusten dugu herritarren gehiengoak ez duela ez Aiaraldean, ez inon frackingik nahi. Udaletara helarazi da gogo hau, eta horrela, dagoeneko eskualdeko herri gehienak haustura hidraulikoaren kontra agertu dira, Fracking gabeko udalerrri izendatuz.

Dinamika honekin jarraituz, martxoaren amaieran Laudio eta Arakaldoko Udal Osoko Bilkuretan frackingaren kontrako mozioak onartzen ahaleginguduko gara. Era honetan nahi dugu eskualdeko udalerrri guztiak mehatxu honen kontra agertzea. Ama lurr bizirik behar dugu! Frackingik ez! Ez hemen, ez inon!

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

#### Tirada:

10.000 ale.

#### Maistasuna:

Hamabostekaria

#### Lege gordailua:

BI-1230-2013

#### Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

#### Publizitatea:

publizitatea@komunika.eus

Tlfnoa: 688 62 53 94

#### Web-gunea:

www.aiaraldea.eus

#### Helbidea:

Nerbioi Kalea 12, behea.

Laudio. Araba. 01400

#### Telefonoak:

Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

#### ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### Egunkari hau laguntzen dute:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Alava

www.araba.eus

**Graf!k**

Graf!k Koop.  
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)  
94 672 65 43  
info@grafiksarea.com

**JEZ**

JEZ Sistemas Ferroviarios  
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)  
Tel.: 946 721 200 // info@jez.es

**BASA LARRINA**  
euskal  
TOPAGUNEA

# \_herriz herri

## Aiaraldea

# Begiratokia berrituko du Santiago mendian Gaztela eta Leongo Juntak

Amurrioko Udala Foru Aldundiarekin jarri da harremanetan, proiektuak muga zeharkatu eta Amurriorena den espazio zati bat hartzen duelako.

ERREDAKZIOA I  
Aitor Aspuru Saez

Gaztela eta Leongo Juntak begiratoki berria instalatu nahi du Santiago mendian. Proiektu berritzaila diseinatu du. 2019an gauzatu nahi dute beranduenera, hau da, indarrean dagoen legealdia amaitu baino lehen.

Azpiegitura berriak airean egotearen sententzia sortu nahi du, eta horretarako kristalarekin eta "tramex" izeneko materialarekin egingo dute balkoia. Hain zuzen, 200 metrora egongo da behatokia "eskegita", eta ertza zulatuta aterako da amildegira. Eraikinak irisgarritasun irizpideak beteko dituela adierazi dute.



Gaztela eta Leongo Juntak egindako proiektuaren irudia. Argazkia: Gaztela Leongo Junta

### Paisaian integraturik

Diseinua paisaiarekin integratzea da asmoa, baina bultzatzaileek ez dute nahi inguruarekin nahastea, baizik eta ikusgarria izatea, hegaztiak istripurik izanez ez zuten, besteak beste.

Materialen aldetik, "corten" al-tzairuzko saiheak izango dira balkoiaren oinarria. Gai horren bereizgarria da oxidatu arren ez duela ezaugarri mekanikorik galtzen.

Momentuz Gaztela eta Leongo Juntak ez du zehaztu inbertsioa zenbatekoa izango den. Hala ere, jakinarazi du proiektua egitasmo zabalago baten barruan dagoela. 43 esku-hartze egikarituko dituz-

te eta 26 milioi euro gastatuko dituzte guztira.

Kokapen aldetik, behatoki berriak oraingoaren lekua hartuko du. Gaztela eta Leongo Juntak adierazi duenez, obra planteatzearen arrazoia egungo metalezko egitura zaharkitua geratu izana da.

### Udala, informazio eske

Amurrioko Udala harremanetan jarri da Arabako Foru Aldundiarekin, proiektu hori dela eta. Izan ere, behatokiaren zati batek muga zeharkatu eta Amurrioko espazio zati bat okupatuko du.

## Amurrioko alkateak adierazi du leku hori gune babestuen Red Natura 2000 sarearen barruan dagoela

Alkateak azaldu du espazio hori gune babestuen Red Natura 2000 sarearen barruan dagoela, eta nabarmendu du Arabako Foru Aldundiak ingurumen arautegi propioa duela. "Zalaparta nahiko sortu duen proiektua da, oso estruktura itxurosoa planteatzen duela eta, gutun bat helaraziko dio Udalak Gaztela Leongo Juntari, proiektuaren nondik norakoen inguruko informazio zehatza eskatzeko. "Jasotzen dugun informazioa baloratu ostean erabakiko dugu nola jokatu", azaldu du alkateak.

## Bulegoak ixteko erabakia "behin betikoa" dela esan du Kutxabanke



ERREDAKZIOA I  
Lucia Menoyo

Kutxabankeko ordezkariekin bildu dira Okondo eta Laudioko Udalak. Tokiko erakundeetako ordezkariak bi sukurtsalak berriro irekitzeko eskatu dute, horretarako hainbat argudio azalduz. Alabaina, Kutxabankeko ordezkariak erabakia behin betikoa dela adierazi dute, "ondo pentsatutakoa eta atzera bueltarik ez duena".

Laudioko Udalak, Kutxabanken bezeroa izanik, iragarri du berriki egingo duela bankuarekin duen harremana.

## Tren linearen egoera landu dute Espainiako Kongresuan



ERREDAKZIOA I  
Aitor Aspuru Saez

Espainiako Kongresuko Sustapen Batzordean jorratu dute Renfeko C-3 linean dauden gabeziak, irisgarritasuna eta segurtasun, bereziki. Alderdi gehienek babestu dute lanak egiteko beharra; eta Gobernuari eskatu diote berauek gauzatzea, Ciudadanosek salbu. EAJK aurkeztu du ekimena eta alderdi politiko orok, Ciudadanosek ezik, bat egin dute C-3, C-2 eta C-1 lineen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko eskaerarekin. Leopoldo Barreda PPko ordezkariak azaldu du Arrankudiagako geltokian lanak egikaritu dituztela dagoeneko, eta Urduñako proiektua prestatzen ari direla.



ARGAZKI GALERIA: Kanporamartxo jaia ospatu dute asteburuan Orozkon, Laudion eta Arrankudiaga-Zollon. Mendira jo dute herri horietako hainbat bizilagunek, txitxi-burruntziak prestatutako hamaiketakoak gozatzeko. Argazkia: Felix Mugurutz, a

## Orozko, Arakaldo eta Urduñako gazteriar buruzko azterketa abian

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Nerbioi-Ibaizabaleko herrietako gazteen diagnostiko bat egingo dute; tartean, Orozko, Urduña eta Arakaldokoena. Gaztedi Nerbioi-Ibaizabal taldeak proposatutako ikerketaren asmoa da 15 eta 29 urte bitarteko gazteen errealitateari buruzko ezagutza handitzea.

Datu kualitatibo eta kuantitatiboak bilduko dira horretarako galdetegien bidez. Azterketa horrez gain, beste ekimen bat

ere prestatu dute gazteei begira: beka programa. Hain zuzen, sei beka sortu ditu guztira, 18 eta 25 urte bitarteko langabetuei zuzendutakoak.

### Sei hilabeteko iraupena

Sei hilabeteko iraupena izango dute beka horiek eta dagoeneko zehaztu dira horietako hiruren nondik norakoak. Hilabete honetan aurkeztuko dituzte beste hiru beken ezaugarriak.

\_herriz herri

## Artziniega

# Alkatearen kalitatezko botoarekin onartu dira udal-aurrekontuak

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Artziniegako Udalaren 2017ko aurrekontua onartu zen otsaileko Udal Osoko Bilkuran. EAJK alde bozkatu zuen eta EH Bildu eta PPK, aldez, kontra. Botoetan berdinketa bat eman zenez, Iñigo Gomez alkatearen kalitatezko boto bidez onartu ziren aurrekontuak.

Gauzak hala, 1.810.814,13 eurokoa izango da aurten aurrekontua, iaz baino % 4,64 gehiago. Igoeraren arrazoia da aurten Fofelek diru gehiago emango diola udalari.

### Inbertsioetan % 60ko igoera

Udaletik jakinarazi dute 170.188 euro bideratuko direla inbertsioetara, iazko aurrekontuan aurreikusitakoa baino % 60,69 gehiago.

Ondorengo obretan inbertituko da: Barcena auzoko aparkalekuan, autobus geltokiko inguruaren hobekuntzan eta igerilekuen arazketa sistemaren hobekuntzarako proiektuan. Auzoetan ere hainbat obra egingo dituzte. Esaterako, argiteria berrituko da, eta proiektua egingo da Barratziko bidea birbailoratzeko.

### Oposizioaren kritikak

EH Bildu eta PPK hainbat kritika helarazi dizkiote EAJren udal-gobernuari. EH Bilduko zinegotzia den Arkaitz San Josek azaldu du "zer-



Artziniegako Udal Osoko Bilkura. Argazkia: aiaraldea.eus

**170.188 euro bideratuko dira inbertsioetara, iaz baino % 60 gehiago**

**EH Bilduk eta PPK hainbat kritika helarazi dizkiote udal-gobernuari**

bitzuetan zementuan baino gehiago" inbertitu beharko litzatekeela. Gaineratduenez, aurrekontuei begira egin den prozesua ez da parte hartzailea izan: "Aurpegia garbitzeko propaganda ekintza bat izan da".

PPrentzat, aldez, aurten aurrekontuak "iazkoen kopia txar bat" baino ez dira. Joseba Elejalde zinegotziak adierazi du aurrekontuaren gehiengoa ohiko gastuetara bideratuko dela, "inbertsioetarako % 9 baino ez utziaz". Iñigo Gomez alkateak kritika horiei erantzun die esanez udal talde guztiek izan dutela aurrekontuei ekarpenak egiteko tartea, eta aurrekontuan txertatu direla EH Bilduren zein PPren proposamenetako batzuk.

# Artziniegan jokatu da Euskal Herriko Mus Txapelketako Arabako kanporaketa

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Larunbat honetan, otsailak 25, egingo dira Euskal Herriko IX. Mus Txapelketako kanporaketak. Artziniegan egingo da Arabako Kanporaketa, La Encina jatetxea.

Goizeko hamarretan hasiko dira partidak eta 32 bikote arituko dira guztira norgehiagokan.

### Eskualdeko lau bikote

Parte hartzaileen artean Artziniegako bi bikote egongo dira: Alberto Moradeira eta Julio Izuskiza eta Alberto Mezhorta eta Jose Angel Catera. Amurrioko bikote bat ere egongo da, Tomas eta Txominen osatutakoa. Audioko Rafa eta Ederrek ere hartuko dute parte kanporaketan.



Txapelketaren aurkezpena.

Martxoaren 25ean jokatu da finala, Tolosaldeko Anoeta herrian.

## Arrankudiaga-Zollo



Eskolako eta frontoiko argiteria aldatuko dute. Argazkia: aiaraldea.eus

# Energia erdia aurreztuko du Udalak, eskolako eta frontoiko argiteria berrituta

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Arrankudiagako eskolako eta frontoiko argiak LED teknologiarat aldatuko ditu Udalak. Proiektua onartzearen helburu dira "eraginkortasun energetikoa" hobetzea, "atmosfera isuritako CO2 eta SO2 kopuruak" murriztea eta "aurrezpen ekonomiko garrantzitsua" lortzea.

### 40.368 euroko aurrekontua

Udaletik adierazi dute eskola dela, gaur egun, energia gehien

kontsumitzen duen udal eraikina. Argiteria berriarekin energia erdia aurrezteko espero dute.

Proiektua egiteko 40.368 euroko aurrekontua erabiltzea aurreikusiko dute. Diru laguntza bat eskatu du Udalak horretarako Bizkaiko Foru Aldundian. Ez da eraginkortasun energetikoa lortzeari begira udalerrian egingo den lehen obra izango. Kaleko lanparak eta futbol-zelaiko fokuak aldatu dituzte aurreko urteetan.

## Okondo

# Martxoan inauguratuko dute gurasoek auzolanean berritutako Arenaldeko parkea

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Arenaldeko Parkea berritu dute Okondoko eskolako Guraso Elkarteko kideek auzolanean. Abenduan amaitu zituzten aurreikusitako berrikuntzak, baina azken ukituak falta zaizkie oraindik: hesia margotzea eta azken jolasgune bat jartzea.

Lan horiek 15-20 egunen bueltan egitea aurreikusi du elkarrekin. Arabako Foru Aldundiaren 24.900 euroko diru-laguntza bat baliatu dute gurasoek beharrezko material eta tresnak erosteko.



Auzolanean berritu dute haurren jolas gunea. / Argazkia: Guraso Elkartea

\_herriz herri

## Laudio



Martxoan amaituko dira obrak. Argazkia: aiaraaldea.eus

## Zigor espedientea aplikatuko zaio Zubiko Etxeko parkeko obrak egiten ari den enpresari

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Laudioko Zubiko Etxeko obrak egiten ari den enpresari zigor espedientea aplikatzea aztertzen ari da Udala. Jon Ander Altube alkateordeak azaldu du obra amaitzeko bi denbora luzapen eman zaizkiola enpresari. "Otsailaren 10ean amaitu zen bigarren luzapena", adierazi du Altubek, "enpresak hirugarren luzapen bat eskatu du, baina ez zaio emango". Horren ordez "zigor espedientea" aplikatuko zaio, atzeratzen den egun bakoitzeko diru kopuru bat kenduaz. "Obra ordaintzerako orduan kopuru hori kenduko zaio aurrekontuari, atzeratutako egunengatik biderkatuta".

Aferaren berri eman du EAJren udal-taldeak prentsa ohar bidez. EH Bilduko gobernu taldeak baieztatu egin du informazioa.

### Martxorako amaituta

Altuberen esanetan, martxoaren erdialderako egongo dira amaituta obrak.

EAJren udal-taldeak, bere aldetik, gogorarazi du parkearen egokitzapen proiektua berari esker gauzatu dela. "2016 urterako EH Bildurekin erdietsitako aurrekontu-akordioetan aintzat hartu eta gero". Besteak beste, eraikina inguratzen zuen hesia bota eta jolas gunea berri dute.

## "First", "Advanced" eta "PTE" azterketak egingo dituzte Laudion



ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Latorroko Helduen Hezkuntzarako Zentroan hizkuntza azterketak egiteko aukera egongo da aurtentzen. Hala ere, Udalak eta Deustuko Unibertsitateak akordioa sinatu behar dute oraindik.

Hala, Laudioko zein eskualdeko ikasleek izango dute aukera azterketa egiteko; eta First, PTE edota Advanced tituluak eskuratzeko.

## Heldu da Lesbosera eskualdean jasotako arropa



ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Laudion abiatu zuten elkartasun ekimenean bildutako arropa errefuxiatuei banatzen ari dira. Urtarrilean heldu zioten auzolanari, eta eskualdeko jende askok parte hartu zuen bilketan. Dagoeneko heldu dira jantziak Lesbosera. Antolatzaileek adierazi dute aurtentzen, zorionez, ez dagoela elurrik, baina bai lokatza.

## Amurrio

## Saneamendu lanak hasi dituzte Larraben, euri urak eta ur beltzak bereizteko



Hasi dira dagoeneko obrak egiten. Argazkia: Hauze Da

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Sanemanendu-lanak egingo dituzte Amurrioko Larrabe auzoan. Euri urak eta ur beltzak bereizteko estolda-sare berezia jarriko dute. Arabako Foru Aldundiko Lan eta Zerbitzuen Foru Planaren proiektua da berez, eta hasi dira dagoeneko obrak egiten.

### Bideetan ere hobekuntzak

Larrabe kaletik doazen tutuak sare nagusi berri bategatik ordezkaturako dituzte. Auzoko kale nagusiko errete batetik joango da sare

berria. Ibilbidea ere aldatuko dute. "Gaur egungo trazadurak Larrabe kalearekiko zutak diren lursailen ondotik doan bidearen lerro maldatsuenetik isurtzen ditu urak, eta zolatu gabeko bide publikoan zehar doaz", adierazi dute udaletik.

Hala ere, jakinarazi dute Letobe kalera igotzeko sare zaharra mantendu egingo dela, "estolda-sare gisa".

Hortaz gain, "zolidurak eta oinezkoentzako bideak hobetzea" barnebiltzen du proiektuak.

## Nagusitzea eta hirigintza uztartuko dituzte jardunaldi batzuen bidez



ERREDAKZIOA |

Txabi Alvarado Bañares

Jardunaldi batzuk antolatu ditu Amurrio Lagunkoia Sustraietatik ekimenak. Egitasmo horren helburua da pertsona nagusiekiko lagunkoia izatea. Lan-talde bat sortu zen horretarako iaz. Talde horrek eginiko ekarpenak aberasteko xedearekin antolatu dituzte jardunaldiak.

Hiru formazio saio eskainiko dituzte guztira. Patxi Galarraga eta Miren Vives arkitektoek dinamizatuko dituzte hirurak. Proiektu Urbes-eko kideak dira biak. Lehen saioa martxoaren 1ean (asteazkena) izango da Amurrioko Kultur Etxean. Zahartzarora eta hirigintza nola uztartu izango dute hizpide bertan, 18:00etatik 20:00etara. Beste bi saioak martxoaren 15 eta 29an egingo dira.

## Orozko

## "Jentilzulo argitzeko" bazkietza kanpaina aurkeztu dute

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Bazkietza kanpaina jarri du abian Orozkoko Gazte Asanbladak, Jentilzulo kultur gunea "argitzeari" begira.

Gazte Asanbladako kideek azaldu dute hainbat muga izan dituzte laudalaren partetik kultur gunean ekingitza publikoak egiteko, baita zailtasunak dituztela alokairua ordaintzeko ere. Dena dela, azpimarratu dute gunea biazela Jentilzulo: "umeentzako udalekuak egiten dira udan, musika eta aisialdi eskaintza dago, ikasteko txoko bat ere bai; zeinetan eskola partikularrak dauden astero".

Bi bazkietza mota plazaratu dituzte, ordainduko eta ez ordain-



Duela bi urte ireki zuten Jentilzulo kultur gunea. Argazkia: aiaraaldea.eus

duzkoa. Diru ekarpenik egiten ez dutenek kultur guneako buletina jasoko dute hileroko. Hiru hileroko sostengu ekonomikoa adierazten dutenek, aldiz, 15, 30 edo 50 euro-

ko kuota ordaintzearen artean aukeratu ahaliko dute. Kultur gune bertaratuta edo Gazte Asanbladaren sare sozialen bidez egin daitezke bazkietza.

# \_jendarte



**Koldo**  
Gilsanz  
PSIKOLOGOA

## \_Hankamotz

### Erregistro zibilean

**A**urrekoan erregistro zibilean nengoela eszena bitxi baten lekuko izan nintzen. Jende ugari zebilen bertan. Horien artean, bi pertsonen arteko harremanak bereganatu zuen nire arreta. Ikusi zitekeen haien artean tentsioa zegoela. Jendarteak ematen duen anonimotasuna baliatuz, behatzen jarraitu nuen.

Batek, entzun ezin izan nuen zerbait esan zuen; eta keinu baldarrarekin eseri zen. Orduan, besteak, buelta eman eta begirada mehatxagarriarekin esan zion "ez bazara berehala ondo esertzen, ikusiko duzun hurrengo gauza nire eskua zure aurpegian izango da". Serio eta ozenki esan zuen, bertan geunden hamar bat pertsonok errez ulertzeko moduan, baina ez genuen ezer esan.

Bikoteari so egiten jarraitu nuen, mehatxuak eraginik izanango ote zuen ikusteko. Ez, baldarki eserita zegoenak berdin jarraitzen zuen. Besteak, orduan, lepotik heldu eta astindu egin zuen, hankak lurtean eserita amaitu zuen arte.

"Orain bai, norbaitek zerbait egingo du", pentsatu nuen, eta begirada altxatu nuen, akaso ertzaina agertuko zelakoan. Baina oker nenbilen. Pertsona batek errez asko mehatxatu eta jo ahal izan zuen bestea, eraikin publiko batean, jende mordoa-ren konplizitatearekin. Arazorik gabe, aita-semeak zirelako.

Zergatik onartzen ditugu haurrekiko jarrera hauek, beste pertsona batekin gertatzen badira onartzen ez baditugu?

## AINHOA ULIBARRI OCHOA

# "Kimioterapiako artatzea hobetzea izan da nire ikerketako estimulu nagusia"

AINHOA ULIBARRI OCHOA (Okondo, 1979) erizaintzako doktorea eta unibertsitateko irakaslea da. Bi sari eman dizkio SEEOk (Espainiako Erizaintza Onkologikoko Elkarte) eta beste bat eman berri dio Angel Muriel Fundazioak kimioterapiaren ondorio psikologiko eta fisikoen inguruan egindako lanagatik.



Hainbat ikerketa egin ditu Ainhoa Ulibarri Ochoak. Argazkia: A.U

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

### Zer da zehazki ikertu duzuna?

Nire ikerketaren helburu nagusia pertsonen bizipenak gehiago ezagutzeko izan da, minbizia duten eta kimioterapia tratamendu sistemikoa (zain barenkoa) anbulatorioan jasotzen dutenena.

Pertsona horiek onkologia-ko eguneko ospitalera etorri behar dute hainbat ziklotan, kimioterapia tratamendua jasotzeko, eta etxera bueltatzen dira egunean bertan. Kimioterapia tratamendu toxikoa da eta bigarren mailako ondorio asko eragiten ditu. Horren harira, gaixoen artatzearen<sup>(1)</sup> hobekuntza izan da ikerketa egiteko estimulu nagusia. Ángel Muriel Fundazioak hori baloratu du nire lanetik.

### Ekarpen berriak egitea saritu ohi du fundazioak. Zure kasuan zein izan da?

Orain arte ikuspegi fisiko-

go batetik aztertu da anbulatorioan kimioterapia jasotzen duten minbizidun pertsonen bizitza-kalitatea, gaixotasunak eta tratamenduak eragiten dituen mugen ikuspegitik; baina ez da ia ikerketarik egin gaixoen bizipenak jorratzen, ongizatearen eta emozioen aldetik.

Horrez gain, ikerketa hau Euskal Herrian eta Espainian garatzen den lehena da; minbizia duten eta kimioterapia sistemiko anbulatorioa jasotzen ari diren pertsonen inguruan egiten den diseinu kontrolatu (multizentriko eta longitudinal) baten bitartez.

Gainera, bularreko, birikako eta koloneko minbizia duten pertsonen portaerak ere elkarrean artean konparatu eta iker-tu egin dira. Konparaketa hori egiten duten ikerketa gutxi daude munduan.

### Zeintzuk izan dira zure lanaren ondorioak?

"247 gaixori egin diegu kimioterapia tratamenduaren jarraipena"

"Kimioterapia jasotzen duten pertsonen bizipenak jorratzen ditu nire ikerketak, ongizatearen eta emozioen aldetik"

"Gustatuko litzaidake ezagutza guzti horiek praktikara eramatea"

Nahiz eta tratamenduan pertsona horiek buruko osasun mentala mantendu, afektibitate edo egoera emozionala okertzen doa, euren ongizate emozionalean eragina izanez, eta geroz eta urduriago eta negatiboago sentituz, egoerari aurre egin ezin izango diotenaren sententzioarekin.

Ikerketa horren bitartez argi geratu da kimioterapia jasotzen ari diren pertsonak tratamendu osoan laguntzearen garrantzia.

### Zer eragin dizu saria jasotzeak?

Saria jasotzeak lagundu egin dit ikerketaren xede<sup>(2)</sup> eta emaitzak ikusgarri egiten, bai Estatuan eta baita Euskal Herrian ere. Horrekin batera auke- ra izan dut pertsona horien eta

euren familiaren artatze psikologikoaz arduratzen den fundazioa ezagutzeko, eta egiten duten lan garrantzitsua zabaltzeko. Ilusioz eta emozio handiz jaso dut saria, egoera horretan dauden pertsonak laguntzea izan delako ikerketaren asmo<sup>(3)</sup> nagusia.

### Nola burutu duzu ikerketa?

Ikerketak egiteko 4 urte baino gehiago baliatu ditugu, esfortzu handia izan da. 247 gaixori egin diegu kimioterapia tratamenduaren jarraipena.

Oso neketsua eta anbizio handikoa izan da lan hori. Baina lortu dugu, eta horrek izugarri poztzen nau; batez ere, gaixoen bizipenak gehiago ulertu ahal izan ditugulako eta horrek lagunduko duelako pertsona horiei ematen zaien artatzea hobetzen.

### Zeintzuk dira zure helburuak etorkizunerako?

Helburu asko ditut. Une honetan ikerketaren emaitzak zabaltzen nabil parte hartu duten zentro guztietan. Horrez gain, ondorioak publikatuko ditugu aldizkari zientifikoetan, komunitate zientifikoak ikerketaren ekarpena ezagutu dezan.

Beranduago gustatuko litzaidake ikerketa horri jarraipena ematea, jakiteko kimioterapiaren ondorengo fasean gaixo horien bizipena nolakoa den eta dituzten zainketa behar berriak zeintzuk diren.

Horrekin guztiarekin batera, gustatuko litzaidake ezagutza guzti horiek praktikara eramatea, pixkanaka interbentzio zehatzak proiektatuz eta praktikara eramanez osasun-taldeko profesional guztien artean.

**ELKARRIZKETA:**  
Ainhoa Ulibarri-ri eginiko elkarrizketa osorik



### Hiztegi lagungarria

Artatu<sup>(1)</sup>, sendatu/Xede<sup>(2)</sup>, helburu / Asmo<sup>(3)</sup>, intentzio

# Vicente Velasco: Ustezko erailketa politikoa argitzeko urratsak

1976eko urriaren 10ean zendu zen Vicente Velasco Garran behargina. Aceros lantegiko pikete batek eraso zuela esan zuten hainbat komunikabidek. Beste iturri batzuen ustez, baina, poliziek edo eskuin muturreko militanteek erail zuten langilea.



Aceros fabrikaren garaiko argazki bat eta Vicente Velascoren heriotzaren berri ematen duen albistea, ABC egunkaritik hartua.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Nor izan zen Vicente Velasco Garran? Zein da bere figura inguratzen duen misterioa? Eusko Jaurlearitzako indarkeria politikoa buruzko txosten batean azaltzen da bere izena. Laudion erail baitzuten. Jaurlearitza saiatu zen dokumentu horren bitartez bortizkeriaren biktimen aitor-tza sustatzen eta, zentzu batean, lortu zuen. Horren ondorioz, herriar bat ahalegindu da argitzen Vicente Velasco Garranaren inguruan sortu diren zalantzak, txostenak berak jasotzen baitu sakonago ikertu behar dela bere kasua.

## Duela 40 urte eraila

Vicente Velasco Garranek 39 urte zituen, Palentziakoa zen. Aceros de Llodio enpresako langilea zen, eta 1976ko urriaren 10ean zendu<sup>(1)</sup> zen Basurtuko Ospitalean. Antza, hori da eztabaidatutako kanpo dagoen informazio bakarra. Izan ere, pairatutako<sup>(2)</sup> zauriak justifikatzeko hainbat bertsio zabaldu dira.

Hasteko, zenbait albiste agentziek plazaratu zuten Aceros de Llodio beharginen<sup>(3)</sup> pikete batek jipoitu zuela greba ez egi-teagatik irailaren 27an (Txiki eta Otaegiren fusilamenduen lehen

## 1976an hil zen Vicente Velasco Garran. Zenbait egunkaririk egotzi zioten erailketa, baina langileek ukatu egin zituzten akusazio horiek

urteurrenean, alegia). Bestalde, hedabide, erakunde eta egile ez-kertiarrek salatu dute "inkontrolatuek" -hau da, poliziek edo eskuin muturreko militanteek- zauritu zutela manifestazio batean.

### Hirugarren bertsioa

40 urte beranduago, Jose Ignacio Alvarado Meabek (Aceros de Llodio enpresako langile batzordeko presidentea 1987tik itxierara arte) ikerketa gauzatu du gertakaria argitzeko; eta Laudioko alkateari eta Eusko Jaurlearitzako Bizikidetzari eta Bakegintza Taldeari bidali dizkie ateratako ondorioak.

Horretarako, biktimaren lankide ohiekin harremanetan egonda. Batetik, Jaurlearitzaren txostenak jasotzen dituen hipotesiak gezurtatu ditu.

Berak ikertutakoaren arabera, Vicente Velasco Garranaren heriotzak ez zuen izan jatorri politikorik. Horrek ez du esan nahi politikak zerikusirik izan ez zuenik kasuan. Jose Ignacio Alvarado Meaberen ikerketa aintzat<sup>(4)</sup> hartuta, Aceros de Llodioko beste bi langilek eman zioten hil zuen jipoia Velascori, Marbella tabernan eztabaida bat izan ostean.

Bi pertsona horiek ospetsuak

ziren herrian, eskuin muturreko ideologia baitzuten. Dirudienez, krimenaren egileen izen eta abizenak oso zabalduak zeuden herrian, baina Guardia Zibilak ez zuen ahalegin berezirik egin heriotza argitzeko eta arduradunak epaitzera eramateko.

Are gehiago, Alvaradoren uste-tan, horregatik leporatu zien poliziaz hilketa ezkerreko piketei, bi hiltzaileak babesteko; nahiz eta eraso irailaren 26an eman eta greba irailaren 27an izan.

### Langileen izena garbitu

Aceros de Llodioko langile batzordearen presidente ohiaren asmoa ez da soilik Vicente Velascoren hilketaren nondik norakoak plazaratzea izan. Enpresako langileen izen ona garbitzeko asmoa izan du Alvarado Meabek. Bere ustez, greba ugari egin arren inoiz ez zen erabili bortizkeria mobilizazioetan parte hartu ez zutenen aurka.

### Hiztegi lagungarria

Zendu<sup>(1)</sup>, hil / Pairatu<sup>(2)</sup>, jasan / Behargin<sup>(3)</sup>, langile / Aintzat hartu<sup>(4)</sup>, kontuan hartu



Jonatan

Moreno  
PARTE HARTZEAN  
ADITUA

—Hankamotz

Datuak eta  
kontrol soziala

**D**atuen garaian bizi gara. Dirudienez, hori da datorren urteetako "petrolio". Gizarte erabat komunikatu honetan datuak sortzen ditugu nonahi. Adituek diote, bi-hiru urtero munduan dauden datuak bikoizten direla. Datuen produkzio ero honetan gaude gizakiok, sentsoreak, ordenagailuak, mugikorrak, eta abar erabiltzen modu askotan. Ezin dira ukatu datuen onurak, edo behintzat datuen erabilera zentzudunaren onurak: informazio, ezagutza eta adimen gehiago. Guzti hau gizartearen eboluzioa, portaera, beharrak... askoz hobe jakiteko, ulertzeko eta aurreikusteko.

Beste modu batean esanda, egiten eta pentsatzen duguna, gustatzen zaiguna, nora eta nola mugitzen garen, zeintzuk diren gure erlazioak, zer ikasi dugun, non egiten dugun lan. Gure osasun datuak "munduari" kontatzen dizkiogu. (...) Ez pentsa informazio hori "hor" gelditzen denik. Enpresa, gobernu eta erakunde ugari daude datu guzti horien bila, prestaketan eta analisis egiten. Ez dakigu zein interesen atzetik, eta gainera, ez daukagu horreganako inolako kontrol aukerarik.

Teknologi berriak, askatasun eta konektibitatearen promesarekin haren kontrolpean jarri gaitu. Kezkagarriena da pozik eta konturatu gabe jarri garela horretan lanean. Datuak sortzeko aparatuak eta konexioak mantentzeko ordaindu eta guzti egiten dugu.

## Amiantoa, urteen poderioz azaleratzen den arazoa



Amiantoa maneiatzean dago arazoa, material horren zuntzak arnastuz gero, biriketako minbizia garatzeko arriskua baitago. Argazkia: southerncrossasbestosremoval.co.nz

Bere garaian amiantoarekin lan egitean babes neurriak ez hartzeagatik zigortu dute Laudioko Udala. Kepa Galdosen familiari 133.806 euroko kalte ordaina eman beharko dio. Sententzia izebergaren punta baino ez da, amiantoagatik hildako langileen kasu ugari baitaude eskualdean.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Hautsak harrotu ditu Kepa Galdosen senideek Laudioko Udalaren aurka bultzatutako epaiketaren sententziak. Epaiak Udala kondenatu du, familiari 133.806 euroko kalte ordaina ematera behartuta.

2012an hil zen Kepa Galdos, amiantoak eragindako mesotelioma baten ondorioz (biriketako minbizia). Sententziak frogatutzat eman du Galdosek amiantoa maneiatu zuela Laudioko Udalarentzat lanean egon zen urteetan.

Udal langileek ez zekiten esku artean zituzten materialak amiantozkoak zirenik; arnasten zuten hautsa "normala" zela uste zuten, sententzian azaltzen denez. "Udalak ez zien langileei inoiz horren gaineko informaziorik eman eta horregatik ez zuten inoiz babes neurririk hartu".

Amiantoa dela eta Hego Euskal Herriko udal bat kondenatzen duten lehen aldia da honakoa.

### Udalaren balorazioa, positiboa

Iragan ostiraleko prentsaurrekoan jakinarazi zuen Laudioko Udalak ez zuela sententziaren aurka-



**Jose Luis Navarro**  
Aceroseko langile ohia

**"Beste edozein tokitan ere gerta zitekeen, amiantoaren erabilera oso ohikoa izan baita Euskal Herrian"**

**"Udalek eta instituzio publikoek enpresa pribatuen akats berdinak egin dituzte askotan"**

ko helegiterik<sup>9</sup> aurkeztuko. Jon Ander Altube alkateordeak adierazi zuen "positiboki" baloratzen dutela sententzia, orain arte ez zegoen "oinarri juridiko bat" zehazten delako, zeinen bidez udalak baduen modu batera edo bestera jokatzeko aukera.

Altuberen arabera, bide administratibotik joanda ez zen posible izango "bere garaian" gobernu batzordean hartu zen erabakitik harago joatea. Eskuak lotuta zituztela azaldu du alkateordeak. "Genituen txostenek ez ziguten modu administratiboan jokatzeko uzten".

Omnia udal-talde politikoak gogor kritikatu du udal gobernuaren jarrera. "Ez dira gai izan enpatia erakutsi eta udal gisa zuten erantzukizuna euren gain hartzeko". EAJK, bere aldetik, udalgobernuaren jarrera defendatu eta sententzia "arma" gisa ez erabiltzeko deia luzatu du. Altubek ere salatu du Omniaren jarrera, alderdiak esandakoak "gezur hutsa" direla adieraziaz eta familiaren sufrimendua politikoki baliatu dutela argudiatuta.



**Juanjo Basterra**  
Kazetaria

**"Amiantoa toki guztietan dago. 3.000 produktu baino gehiago egiteko erabiltzen zen, oso merkea zelako"**

**"Eskualdeko enpresa garrantzitsu guztiek dituzte amiantoarekin erlazionatutako heriotza kasuak"**

"Udalak eta instituzio publikoak enpresa pribatuen akats berdinetan erori dira askotan osasunarentzat arriskutsuak diren elementuak erabiltzerako orduan", adierazi du Jose Luis Navarrok. Aceros de Llodio enpresako langile ohia da Navarro, eta amiantoari buruzko hainbat epaiketetan aritu da lekuko gisa. Bere ustez, "kasualitatea" da mota horretako lehen kondena Laudioko Udalarik egokitu izana. "Beste edozein tokitan gerta zitekeen, amiantoaren erabilera oso ohikoa baitzen Euskal Herria bezalako industria guneei batean". Hala ere, Aiaraldean gaiarekiko "sentsibilitate berezia" dagoela uste du behargin ohiak, "hainbat pertsona hil direlako eskualdeko fabriketan amiantoarekin lan egiteagatik".

"Laudioko udaleko hainbat langile hil dira minbiziz", azaldu du Juanjo Basterrak. *Cuatro Lunas: El drama del amianto en Euskal Herria* liburua plazaratu<sup>10</sup> zuen Aretako kazetariak abenduan. Kepa Galdosen heriotza jorratzen<sup>11</sup> du bertan, beste hainbat kasurekin batera. Amiantoa "toki guztietan" dagoen





Kepa Galdosen senideek eginiko elkarretaratzea. Argazkia: alea.eus

la uste du ikertzaileak, "3.000 produktu bano gehiago egiteko erabiltzen zen material hori, oso merkea baitzen". Basterrak ere salatu du Laudioko Udalararen jarrera: "Ez dira gai izan duten arazoari aurre egiteko, estali egin dute". Hala ere, kazetariak nabarmendu du arazo orokortua dela. "Eskualdeko enpresa garrantzitsu guztiek dituzte amiantoarekin erlazionatutako heriotza kasuak", ziurtatu du.

## Laudioko 52 udal eraikin aztertu zituen Novotec enpresak, eta horietako 18tan aurkitu zuen amiantoa

### Udal-eraikinak aztergai

Kepa Galdos hil zenean hasi zen Laudioko Udala amiantoaren gaia jorrratzen, Juanjo Basterrak azaldu duenez. "Udal eraikin azterketa bat enkargatu zioten Novotec enpresari duela hiru urte". 52 udal eraikin aztertu zituen enpresa horrek, eta 18tan detektatu zuen amiantoaren presentzia.

Laudioko Udalak iazko abenduan ekin zion amiantoakentzeari. Latio-rroko Eskolako fibrozementuzko jardinerak kendu zituzten orduan eta udan uralitazko (amiantoz eginko materiala) plaka batzuk kenduko dituzte eskola beretik. Aretako Fabian Legorburu ikastetxean dagoen beste plaka bat ere kenduko dute aurten. Horiek dira udal-letik momentuz aurrekusi dituzten pausoak.

Laudiokoa da eskualdeko eraikin publikoetan amiantoak duen presentzia aztertzeko eginiko iker-

keta bakarra. Orain Amurrio taldeak mozioa aurkeztu zuen azaroan, herrian horrelako inbentario bat egiteko eskatuz. PPK ez beste talde politiko guztiek bozkatu zuten proposamenaren alde, eta udal-gobernutik adierazi dute hasiak direla ikerketa hori nola egin aztertzen. Oraindik hauts asko geratzen da alfonbra azpitik ateratzeko.

### Hiztegi lagungarria

Helegite<sup>(1)</sup>, errekurtsio / Tankerakoa<sup>(2)</sup>, modukoa, itxurakoa / Plazarratu<sup>(3)</sup>, aurkeztu, argitaratu / Jorrratu<sup>(4)</sup>, landu

## DATUTAN

**15** heriotza eragin ditu amiantoak Aiaraldean, Juanjo Basterra kazetariaren arabera

Iturria: EUSTAT

**30-40** urte beranduago garatzen da amiantoak eragindako minbizia

**% 5** soilik diagnostikatzen da laneko gaixotasun gisa, amiantoak eragindako minbizia kasuen portzentaia altuagoa bada ere



Aceros de Llodio labea, 1960 urtean. Amiantoa erabiltzen zuten beroa isolatzeko / Laudioko Udala

# Heriotza kasu ugari daude eskualdeko enpresetan

Aiaraldean 15 heriotza dokumentatu ditu Juanjo Basterra kazetariak: 8 Aceros de Llodion, 3 Guardianen, 2 Tubos Reunidosen eta bat Tubacexen.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Zaila da amiantoak eragindako kaltea zifretan neurtzea. Hego Euskal Herrian jazotako 1.464 heriotza kasu identifikatu ditu Juanjo Basterrak argitaratu berri duen liburuan.

Aiaraldean 14 heriotza kasu zenbatu ditu, Kepa Galdosena kenduta: zortzi Aceros de Llodion, hiru Guardianen, bi Tubos Reunidosen eta bat, gutxienez, Tubacexen.

"Labeak zituzten lantegi guztietan erabiltzen zen amiantoa, beroa oso ondo isolatzen zuelako", erantsi du Jose Luis Navarrok. Baina Basterrak azpimarratu du askoz heriotza gehiago eragin dituela amiantoak eskualdean. "Datuak egon badaude. Nork dituen, horretan dago koska. Zenbait sektorek interes handia dutela gaia ezkutatzeko". Medikuek, enpresen jabeak, mutualitateak... dira estalketa horren erantzuleak, kazetariaren aburuz<sup>(1)</sup>.

Zifren ezkutatzearen atzean "arazo ekonomiko bat" dagoela uste du Basterrak. "Gizarte segurantzak amiantoagatik kalte-tutako langile askori ematen die pentsioa. Ez zaie lan gaixotasuna aitortzen, aitortuko balitzaie

**47.000** pertsona hiltzen dira urtero Europar Batasunean amiantoaren ondorioz

**Datozen 40 urteetan 10.000 lagun hilko dira amiantoagatik Euskal Herrian, sindikatuen arabera**

enpresaren arduraren izango litza-tekeelako pentsioa ordaintzea".

"Amiantoaren arazoa da zuntzak arnasten direnetik 30-40 urtera agertu daitekeela minbizia", azaldu du Navarrok. Lan munduaren prekarietateak egoera zailtzen du. "Enpresaz etengabe aldatzen bazabiltza askoz zailago izango da amiantoa non arnastu duzun jakitea", nabarmendu du Basterrak.

Hori dela eta, luzerako emango duen arazoa izango da amiantoarena, kazetariaren ustez. "Datozen 40 urteetan 10.000 pertsona hilko dira Euskal Herrian, sindikatuen kalkuluen arabera".

Gauzak hala, Aiaraldean ere langile ugari hilko direla aurrekusi daiteke. Granadako Unibertsitateak eginiko ikerketa bat aipatu du Basterrak. "Ikerketa horren arabera amiantoak eragindako minbizien % 5 baino ez da diagnostikatzen lan gaixotasun gisa. Izutzeko modukoak dira datuak estropolatuta ateratzen diren zifrak".

### Hiztegi lagungarria

Aburuz<sup>(1)</sup>, ustez / Arest

# \_kultura

## EGOITZ BERNAOLA LUXA

### “Estresa ‘El Rey León’ ikuskizunean? Bai, baina hori da antzerkiaren xarma!”

EGOITZ BERNAOLA LUXAK (Laudio, 1983) Madrilan lan egiten du, “El Rey León” antzezlan ospetsurako “attrezzoak” prestatzen. Beste bi musikal ospetsutan ere aritu da: *My Fair Lady*-n eta *Cabaret*-en.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

#### El rey león ikuskizunean hartzen duzu parte. Zein da zure eginkizuna?

Ikuskizun erraldoia da estetika eta teknika aldetik. Beraz, ezinbestekoa da jende askoren lana musikala egunero aurrera ateratzeko. Ehun pertsona baino gehiago gaude lanean guztira, aldi berean, saio bakoitzean.

Oholtzaren<sup>(1)</sup> begi-bistako aldean gailentzen dira antzezle, dantzari, abeslari edota musikariak. Publikoak ikusten ez duen aldean, aldiz, teknikariak gaude: argigileak, jostunak, makinariak, ile-apaintzaile eta makillatzaileak, automatizazio eta soinuaren arduradunak, errejidoreak...

Ni alderdi teknikoan aritzen naiz, ekoizpen honetan “props and puppets” izendapen ingelesarekin ezagutzen dugun arloan zehazki. Hau da, musikalaren “attrezzoak” (tresneria eta objektuak) eta animalia-txotxongiloen erabileraz, mantenuaz eta berriztapenaz arduratzen den taldean nabil ni.

#### Nolakoa da lan hori barrutik?

Lan ezezaguna da, normalean, publikoarentzat. Attrezzoaren mantentze eta berriztapen lanez gain, egunero ikuskizuna alde aurretik prestatu egiten dugu; eta, behin hasita, denbora errealean egiten dugu lan.

Jendeak kanpoaldean ikusten duena bezain koreografiatuta dago antzeztokiaren barruan egiten den lana. Ardura eta kontzentrazioa behar da, askotan tresna oso astunak erabiltzen ditugulako kate-motorrekin, adibidez.

Astero, normalean, sei egu-

“Nire egunerokotasunak ‘El rey León’ musikalean, berez, ez du inolako glaumorrik”

“My Fair Lady” eta ‘Cabaret’ musikaletan ere lan egin dut”

nez egiten ditugu lan, zortzi edo bederatzik emankizun dira guztira. Baina atsedenerako egunak ere baditugu hilean zehar banatuta. Estresa? Batzuetan bai. Baina... hori da antzerkiaren xarma!

#### Ez da, ordea, parte hartu duzun lehen musikal arrakastatsua.

Beste bi musikaletan aritu naiz, bai: *Cabaret*-en eta *My Fair Lady*-n.

#### Nola heldu zara mundu horretara?

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nuen, EHU-n. Gero Madrilera etorri nintzen Eszenografia Diseinua deritzon bi urteko graduondoa egitera, TAI Unibertsitate Arte-Eskolan.

Ikasketak bukatu ostean antzerki arloan hasi nintzen lanean, eszenografia eta jantzien diseinuak egiten eta baita antzekien arlo teknikoan buroa sartzen. Aldi berean, zenbait espezializazio ikastaro egin ditut, ehunen<sup>(2)</sup> estanzio artistikoan edota txotxongiloen diseinuan.

Ibilbide aldakor eta ezegonkorra izan da batzuetan, bereziki krisiaren urte go-

rrenetan. Lan egiteko gogoak eta iraunkortasun pertsonala oso garrantzitsuak dira mundu honetan ere. Zorte pixka eduki behar da baita, noski. Gaur egun oso pozik nago.

#### Glamourrez betetako lanbidea al da?

Beno, glamourra! (barreak). Nire egunerokotasunak *El Rey León*-en, berez, ez dauka batera glamourrik. Ikusi beharke zenukete gure itxura antzekiaren tailerrean, margoz lohituta<sup>(3)</sup>, babes-mozorroarekin, afrikar sabanako animaliak berriztatzen...

#### Pasadizo dibertigarrik ba al duzu gogoan?

la egunero ematen dira bitxikeria dibertigarriak ikuskizunean. Ez dut ahaztuko nire lehen-dabiziko lanegunetako batean gertatu zitzaidana. Saioaren amaieran aktore batek erabiltzen duen txoridun kometa bat jaso behar nuen, eta hasiberriaren urduritasunak jokaldi gaiztoa egin zidan: denbora gaizki kalkulatu eta antzeztokian sartu nintzen, ilunean, eszena bukatuta, kometaren bila. Orduan konturatu nintzen agurrak segidan zetozela, oihala berriro igotzear zegoela eta han ez nuela egon behar. Zorionez, garraiz atera nintzen bertatik, izerditan blai. Baina... a ze une txarra!

#### Hiztegi lagungarria

Oholtza<sup>(1)</sup>, eszenatoki / Ehun<sup>(2)</sup>, oihal / Lohitu<sup>(3)</sup>, lokaztu



Luis Vil ZINEMAGILEA

## \_Kamerinoa

### Adierazpen askatasuna

Adierazpen askatasuna beti egon da enpresa taldeen eta hauen zerbitzura dauden indar politikoen komunikabideengatik kontrolatua. Komunikabide horietan aurretik aukeratutako pertsona batzuek baino ez zuten ahotsa, ideologia zehatz bat saltzea helburu.

Testuinguru horretan inoiz ez da adierazpen askatasuna zailtzan jarri, ez zegoelako boteretik at erabiltzeko moduko inolako tresnarik disidenterik.

Aro teknologiko honetan, sare sozialen ugaritzearekin, bilakaera bat izan du komunikazioaren munduak, edozein erabiltzaile bozgorailu mediatiko bat izateraino.

Argi dago internet, hein handi batean, boterean zerbitzura dagoela, erabiltzailea kontsumitzaile eta merkantzia bihurtuz aldi berean. Baina helburu horretarako sortutako sareak hainbat bide utzi ditu irekita disidentziarako. Botereak komunikabide guztien gaineko kontrola mantendu nahi du.

Horren adibidea da Alfredo Ramirez amurriarraren kassua. Epaitu eta kartzelan sartu nahi dute Alfredo, adierazpen askatasuna baliatzeagatik, estatuko beste hainbat pertsonekin egin duten bezala.

Botereak errepresioa baliatzen du eta purgatu egiten ditu disidente kontsideratzen dituen horiek. Ez dago beldurra baino gauza hoberik jendarte mutua kontrolatzeko.



## \_kultur leihoa



Lander Arteaga  
ZINEMA



### Teresa eta Galtzagorri

**Zuzendaria:** Agurtzane Intxaurreaga  
**Herrialdea:** Euskal Herria  
**Iraupena:** 75 minutu

Ipuin txiki batzuetatik jaiotako film luze hau zoragarria dela esateak, agian, ez du ezer zehatzik esan nahi. Zoragarria izan liteke, eta aldi berean, lan kaskar bat ere. Baina zorionez ez da gure kasua. "Teresa eta Galtzagorri" filmak ipuinek duten magia hartu, zinemaren mundura moldatu eta bizkortuta itzultzen digu ekoizpenaren minutu guztietan zehar. Ez da hitzekin erraz azaldu daitekeen sententzia bat, ez. Umeek sentitu dezaketena eurek bakarrik ulertuko dute, gure laguntzarik gabe.

"Teresa eta Galtzagorri" ez ditu Disney edo Pixarren filma batek dituen baliabideak, baina ez ditu behar. Bere helburua ikusgarritasuna baino sentimenduak piztea da. Animazioa ere oso interesgarria da. Marrazkiak eratzeko teknika interesgarri bat erabili da, kolore sorta deigarri eta indartsu bat aurkeztuz. Musikak, aldiz, hausnarketa sakonago bat mereziko luke. Joseba Beristainek osatu duen soinu banda pelikularen osagai bat baino pertsonaia propio bat da, Teresa edota Tim bezalakoa.

Ez da ohikoa halako euskal ekoizpen bat zinema-aretoetan ikustea, askotan oso zaila baita halako pelikula bat estreinatzea. Baina zorionez Teresa eta Galtzagorri indarrez heldu da gure aretoetara. **Amurrio Antzokian proiektatuko dute filma igandean (otsailak 26), 17:30ean.**

## ERAKUSKETA

### Munduko 500 josteko makina baino gehiago, Artziniegan ikusgai

Erakusketa berezia inauguratu dute Artziniega Museoan. Luis de Pedro bildumazalearen antzina-ko josteko makinak daude ikusgai bertan, maiatzaren 11 arte. Ez da edonolako bilduma: 500 makina baino gehiago dira, hainbat marka eta garaietakoak.



Pyrenaica aldizkariko bigarren saria eskuratu duen Vicente Contrerasen argazkia.

### Arkaitz Vidal eta Vicente Contreras saritu ditu Pyrenaica aldizkariak

ERREDAKZIOA | Irati Marañon Quintana

1926. urtetik Pyrenaica aldizkaria euskal mendizaleen historiaren lekuko da.

Aurten Pyrenaica sarien XXXIV. edizioa antolatuko dute Euskal Mendizaleatasunaren XXI. Sari bana irabazi dute bertan Arkaitz Vidal eta Vicente Contreras amurriarrek.

Arkaitz Vidal amurriarrek sarrera gehien dituen kolaboratzailearen saria irabazi du Pyrenaica-ko Blogaren I. Lehiaketan. Epaimahaiaren iritziz, Vidalek ekarpen handia egin dio blog berriari, eta aldizkarirako erreferentziabilakatzea lortu du.

Vicente Contrerasak, berriz, bigarren saria irabazi du XXXIV. Mendi Argazkien Lehiaketan, Markizko (Araba) eremitorioen argazki-bildumari esker.

### Dokumental onenaren "Urrezko txapela" jaso du Esti Urresolak

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Dokumental onenaren "Urrezko txapela" jaso du Esti Urresola zinemagile audioarrak zuzendutako "Paperezko ahotsak" filmak Zinemaldia.cat jaialdian. Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen du lehiaketa, eta hamar pelikula hautatu zituzten aurtengo ediziorako: fikziozko lau eta sei dokumental. "Igelak" lanak lortu du fikziozko pelikula onenaren saria; eta "Gutik zura" dokumentalak, euskarazko lan onenarena.



Esti Urresola txapela eskuan.

## MUSIKA

### Goiatz Duttok 22 kontzertu emango ditu Moonshine Wagonekin Brasilen

Goiatz Dutto musikari audioarrak Moonshine Wagoneko kidea da. Taldeak iragarri berri du Brasilen 22 emanaldi eskainiko dituela. Otsailaren 22an hasiko dute bira Curitiban eta martxoaren 26an bukatuko dute Ribeirao Pretoan (Sao Paulo).



### Rober Bask audioarrak sei izendapen lortu ditu Musika Independentearen Sarietan

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Roberto Gomez egile audioarrak izendapenak eskuratu ditu hurrengo kategorietan: susperraldian dagoen artista onena, urteko abestia, album onena, grabaketa elektronikoa onena, musika ekoizle onena eta diseinu grafikorik onena. Bestalde, Mónica González argazkilaria ere hautatu dute musikariari egindako irudiei esker. Rober Bask da 42 urteko audioarraren izen artistikoa eta musika elektronikoa lantzen du. Bestalde, Audioko Maik Falls gazteak ere bost izendapen jaso ditu. Zea Maysek, Xabi Solanok, Willis Drummondok, Vendetak, Shottak, Sr. Chinarrak, Ruper



Rober Bask musikari audioarra da.

Ordorikak eta Robe Iniestak ere aukeratu dituzte sarien hautagai gisa.

### Arabako Txapelketako hurrengo hiru saioak prest daude



ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Prestatu dituzte Arabako Bertsolaritza Txapelketako hurrengo hiru finalurrekoak. Bertan arituko dira Aiaraldeko hiru bertsolari. Martxoaren 11an Asier Rubio aiararra arituko da Laudion. 18an, aldiz, Izar Mendiguren eta Serapio Lopezen txanda izango da, Aramaion. Mendigurenek 199,5 puntu lortu ditu lehen finalurrekoan, Lopezek 227,5 eta Rubiok 204,5.

### 28.403 ikusle izan zituen iaz Amurrio Antzokiak, 2015ean baino % 8,8 gehiago



ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

28.403 ikusle bertaratu ziren iaz Amurrio Antzokira ikuskizunak edo zinema emanaldiak ikustera, 2015ean baino % 8,8 gehiago.

44 ikuskizun eta 17 pelikula eskaini zituen aretoak 2016an. *Ocho apellidos catalanes* da gehien ikusi den filma, 1.001 ikuslerekin.

Ikuskizun jendetsuena, aldiz, Korrontzi Dantzan izan zen, 342 ikuslerekin.

# kirola

## IGERIKETA

# Laudioko Igeriketa Kluba, ur handitan murgiltzeko prest

Txapelketaz txapelketa dabiltza Laudioko Igeriketa Klubeko kideak. Iragan asteburuan Arabakoan egon ziren, eta asteburu honetan Irun eta Iruñeara joango dira, Euskal Herrikora. Espainiako Txapelketa izango dute helburu.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Hasi da txapelketen denboraldia Laudioko Igeriketa Klubeko kideentzat. Iragan asteburuan Arabako Txapelketan aritu ziren klubeko igerilari federatuak, eta hainbat marka erdietsi<sup>(1)</sup> zituzten. Iraia Andinok eta Beñat Gutierrezek 4. eta 3. postuak lortu zituzten, hurrenez hurren, infantil kategorian. Gazteen kategorian absolutuan, aldiz, Asier Sanchez bigarren geratu zen eta Mikel Lopez hirugarren.

Asteburu honetan beste zita bat dute igerilariak: Euskal Herriko Neguko Txapelketa. Iruñeara joango dira Klubeko bost kide (Zugaitz Ortiz, Asier Sanchez, Ainhoa Ugarriza, Iraitz Duarte eta Mikel Lopez), junior-absolutu kategorian lehiatzen. Beste bi igerilari (Beñat Gutierrez eta Iraia Andino) Irunean arituko dira, infantil kategorian.

Badituzte beste erronka batzuk ere. Beñat Gutierrez, adibidez, Espainiako Txapelketan arituko da, 400 metro libretako kategorian. "Ez dut helburu zehatzik, baina saiatuko naiz marka ona lortzen", adierazi du igerilari laudioarrak.

### Denboraren aurka lehiatu

Iraia Andino, bere aldetik, Udako Espainiako Txapelketa du helburu, baina bertara joateko bere marka bost segundotan hobetu behar du. "2,21 minutukoa da nire marka, baina 2,16ra iritsi behar naiz". Hori da igerilarien aurkari handiena: denbora. Ondo daki hori Iraitz Duartek. Ezingo da lehiatu Euskal Herriko Txapelketan 200 metro krol kategorian, segundo batera geratu delako. Hala ere, aukera izango du 1.500 eta 400 metro krol eta 200 metro estilo librean kategorietan aritzeko.

102 kidek osatzen dute guztira Laudioko Igeriketa Kluba. Eskolarteko kategorian aritzen dira horietako 42. Beste zazpi federatuak dira, eta arestian<sup>(2)</sup> aipatutako norgehiagoketan<sup>(3)</sup> aritzen dira. Lanegun guztietan dituzte entrenamenduak, eta astelehenetan saio estra bat egiten dute arratsaldean, ariketa fisikoak egiteko igerilekutik kanpo.

### Espazio gehiagoren beharra

Goizeko 05:30ean esnatu egiten dira eguneroko (astelehenik ostiralera)



Laudioko Eskolarteko Igeriketa Txapelketa egin zen urtarrilean. Argazkia: Laudioko Igeriketa Kluba

## Arabako Txapelketan lehiatu ziren iragan asteburuan, eta honetan Euskal Herriko Txapelketan arituko dira

## Goizeko seietan entrenatzen dute igerilari federatuak, arratsaldean ez dagoelako espazio nahikoa igerilekuan

klubeko igerilari federatuak, seietan igerileku barruan egoteko. Ordu horretan entrenatu behar dute, arratsaldean ez dagoelako espaziorik igerilekuan. "Esfortzu handia egin behar da horretarako, eta zaila da jarraikotasun mantentzea", adierazi du klubeko entrenatzailea de Iraia Escandonek.

Klubeko zuzendariak ere azpimarratu dute espazio falta dagoela. "50 pertsonako itxaron zerranda dugu datorren denboraldirako, ezin dugu jende gehiago jaso taldean". Klubetik azaldu dute asko eskertzen dutela udalaren prestutasuna, "baina ez da nahikoa, oso txiki geratzen zai-

gu espazioa". Hori dela eta, kiroldegiberri baten beharra dagoela aldarrikatu dute.

"Unibertsitatean hasten den jendeak taldea utzi behar izaten du, ezin delako bertaratu goizeko ordutegian", azaldu du Escandonek. Hala ere, entrenatzailea pozik dago federatuentaldea lortuta emaitzekin: "Zazpi dira, eta zazpiek lortu du Euskal Herriko Txapelketan aritzeko txartela".

### Hiztegi lagungarria

Erdietsi<sup>(1)</sup>, lortu / Arestian<sup>(2)</sup>, lehen / Norghegiagokak<sup>(3)</sup>, lehiaketa



Ezkerretik eskumara: Ortiz, Andino, Duarte eta Ugarriza. / Laudioko I.K.

## TXIRRINDULARITZA

# Aiarabike- Trek-Electroalavesak "sub-23" taldea aurkeztu du



### ERREDAKZIOA |

Aiarabike-Trek-Electroalavesa taldeak "sub-23" taldea aurkeztu du. Elkarre arabarrak harrobia sortu nahi du ahalbidetzeko txirrindulari gazteek ibilbide oparoa egitea. Aurtengoa izango da taldearen lehen denboraldia, eta 10 txirrindulari lehiatuko dira.

## DUATLOIA

# Ibone Sanchez garaile denboraldiko lehen duatloian



### ERREDAKZIOA |

Ibone Sanchez kirolari laudioarrak irabazi du denboraldiko lehen duatloia. Barakaldon egin zen lasterketa, eta Sanchez izan zen metaririk lehen emakumea. 42 segundo beranduago iritsi zen bigarrena.

## MENDI DUATLOIA

# Aiarako II. Mendi Duatloian izena emateko epea ireki dute



### ERREDAKZIOA |

Banaka edo binaka parte hartu ahal da lasterketan. Guztira 6,7 kilometro egin beharko dituzte korrika eta 17 kilometro txirrindulaz. Informazio guztia dago [turesultado.es](http://turesultado.es) web-gunean.

## \_kirola

ATLETISMOA

## Kon Sports Challenger-en "etapa" bat izango da Josito Memoriala



Prensaurrea antolatu zuten ekitaldia aurkezteko. / aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Kon Sports Challenger egitasmoa aurkeztu zuten astelehenan, Kon enpresak Laudion duen egoitzan. Jada existitzen diren lau lasterketez osatutako txapelketa izango da Kon Sports Challenger.

Martxoaren 19an izango da lehena: Villasana de Menako (Burgos) San Jose lasterketako XXXVI. edizioa. Ekainaren 18an izango da txapelketa honen "bigarren etapa": Audioko V. Josito Memoriala. Azken bi probak Castron eta Bal-

masedan jokatu dira; irailaren 17an lehena (10 kilometro lasterketaren VII. edizioa) eta abenduaren 3an bigarrena (XIV. Balmaseda-Zalla-Balmaseda Krosa).

**Parte hartzea, doakoa**

Kon Sports Challengerrean parte hartzeko derrigorrezkoa izango da lau lasterketak egitea. Kon sportschallenger.com web atarian eman daiteke izena. Bertan topatu daiteke informazio guztia.

MENDIZALETASUNA

## Martxoaren 5ean izango da Artziniegako Mendi Ibilaldia



ERREDAKZIOA |

Datorren martxoaren 5ean (igandea) izango da Artziniegako Mendi Ibilaldia, Ganzorrotz Mendi Taldearen eskutik. Duela zortzi urte egin zen martxa hori lehenbizikoz, Jose Maria Yarritu mendizalearen omenez. Urtero bezala, bi ibilbide egongo dira. Txikia 12 kilometrokoa izango da eta 9:30ean hasiko da. Handia, aldiz, 23 kilometrokoa izango da, eta 8:00etan abiatuko da. Frontoia izango da irteera eta helmuga gunea.

**Izen ematea, doakoa**

Izen ematea doakoa da eta egunean bertan egin ahalko da, 7:00etatik 7:45etara ibilbide luzerako eta 8:30etik 9:15era laburrerako.

ATLETISMOA

## Euskal Herriko eta Eskoziako selekzioetako borrokalariak lehiatuko dira Amurrion



Aratz Garmendia izango da Amurrion arituko den borrokalarietako bat.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Euskal Selektzioak eta Eskoziakoak Amurrion izango dute hitzordua maiatzaren 27an. Bi herrialdeetako borrokalariak ringean neurtuko dituzte euren trebeziak, Kick Boxing (edo K-1) izango da diziplina.

**Aratz Garmendia egongo da**  
Hautatutako 6 euskal kirolarien

artean Aratz Garmendia egongo da, baina oraindik ez daki zein borroka artean arituko den, izan ere, baliteke Kick Boxing ordez, MMA praktikatzeara.

Horrez gain, Aratz Garmendiak aitorpen bitxia izan du musika munduaren aldetik; Gransan rap sortzaileak abestia egin dio eta bere hurrengo diskoan plazaratuko du.

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko  
jar ezazu zure alea  
jaso ezazu zure alea

55€  
urtean



**ALEA**  
arabako aldirakaria

Informazio gehiago:  
harpidetza@alea.eus  
945 71 60 09  
www.alea.eus/harpidetzak







Irati  
Maraño  
ITZULTZAILEA

\_Leihotik

Otsailak 27

## ANE URIARTE ARBAIZAGOITIA

*“Kartak sekulako baliabidea dira haurren abileziak, muga fisikoak eta psikikoak ezagutzeko”*

ANE URIARTE ARBAIZAGOITIAK (Laudio, 1984) astrologia eta hezkuntza uztartzen ditu, zeruko zeinu eta planeten posizioak baliatuz. Gaiari buruzko tailerra eskainiko du Laudion martxoan.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

### Ez dira arruntak zuk erabiltzen dituzun kartak...

Jaiotze kartak edota karta astralak pertsonaren joerak modu integratuean ikusteko aukera ematen digu. Hori dela eta, tresna pedagogiko garrantzitsua bilakatzen da norberaren eta inguruaren ezagutzarako.

Askotan izaten dut umeen kartak irakurtzeko aukera, eta sekulako baliabidea dira gurasoek zein bestelako hezitzaileek haurrek berezkoak dituzten trebetasun eta muga fisiko zein psikologikoak ezagutzeko.

### Zer nolako informazioa ematen dute ba?

Karta, bizitzako lehen arnas hartzearen uean, zeruari ateratzen diogun “argazkia” da, zirkunferentzia batean adierazita datorrena. Planeta eta zeinuen arteko erlazioak modu bi-

txian daude banatuta karta bakoitzean.

Guzti horrek, potentzialki dauden joera fisiko eta psikologikoak ikertzeko aukera ematen digu.

### Nondik datorkizu astrologiarikiko interesa edo harremana?


Astrologia nerabea nintzela ezagutu nuen lehenbizikoz, 13-14 urte nituenean. Garai hartan neukan terapeutak nire joerak aztertzeko euskarri gisa erabiltzen zuten, eta lehengo egunetik zeharo liluratuta gelditu nintzen. Nola esan zezakeen hain modu zehatzean niri buruzko horrenbeste bitxikeri ezagutzen ez ninduen pertsona batek?

Urte batzuen ostean, 18 urterekin edo, ikastaro presentziarazko hasteko aukera izan nuen.

### Aditu gisa hainbat hitzaldi eskaini dituzu astrologiari buruz.

Bai, baina ez naiz astrologoa. Astrologia “mancia” delako bat da nirea. Guk orainean oinarritzen den astrologia erabiltzen dugu. Hau da, ez dugu etorkizuna aurreikus-

teko interesik; eta aldi berean, ez gara iraganeko kontuetan buelta gehiegi ematearen zaleak. Jakinmina baduzue tailer bat emango dut Laudion martxoak 24an, 31n, apirilaren 7an eta 21ean!



# KOMUNIKA

*Itzulpenak - Interpretazio zerbitzuak - Streaming-ak  
Diseinu grafikoa - Publizitatea - Komunikazioa - Argitalpenak*